

Eduki digitala eta HBIak zabalki sustatzen eta erabiltzen dira

Erakundeak espero du eduki digital egokia, kalitate handikoa eta pertsonalizatua, edozein tokitatik eskura daitekeena, erabiliko dela, eta, gainera, erabiltzea sustatzen du eta erabiltzeko erraztasunak ematen ditu, pertsonalaren eta ikasleen premiak asetzeko, irakaskuntza eta ikaskuntza edonon eta edonoiz gauzatzen dela ere.

Pertsonalak eta ikasleek sortzen dute edukia

Erakundeak bultzatu egiten ditu pertsonala eta ikasleak, eta lagundu ere egiten die, **curriculum arteko eduki digitala eta irakasgai bakoitzeko espezifikoa sortzera eta kontsumitzera**, curriculum arlo formaletan nahiz informaletan erabil dezaten.

Edukiaren biltegiak zabalki eta modu eraginkorrean erabiltzen dira

Pertsonalak eta ikasleek beren **ikasketa-programetarako garrantzidunak diren edukien biltegiak** identifikatu eta erabiltzeko gaitasuna garatzen dute, bai eta errepositorio horiei **oharren eta komentarioen** bidez balio komunitarioa eranstea ere.

Jabetza intelektualeko eta copyright eskubideak errespetatzen dira

Erakundeak ezarrita ditu politikak eta prozedurak ziurtatzeko alderdi interesdunek **informazio osoa** dutela eduki digitala erosten, erabiltzen, birkonbinatzen edo sortzen denean jarraitu behar diren **jabetza intelektualeko eta copyright araei** buruz.

Erreminta eta eduki digitalek lizentziak dituzte hala behar denean

Erakundeak ezarrita ditu **politikak eta prozedurak edukia** (esate baterako, liburu elektronikoak, egunkariak), **softwarea, aplikazioak, plataformak eta argialetxe/merkataritza- hornitzaileetatik eskuratutako bestelako hezkuntza-baliabideak erabiltzeko lizentziei dagokienez.**

Hezkuntza baliabide irekiak sustatzen eta erabiltzen dira

Erakundeak aktiboki sustatzen du **Hezkuntza Baliabide Irekiak (HBI) erabiltzea/birkonbinatzea/sortzea** eta [Creative Commons](#) lizentziak ematea, curriculum modernizatuei oinarria emateko eta ikasleei beren ezagutza eta trebetasunak garatzeko eta ikaskuntza-erantzukizuna zabalgarriak lortzeko aukerak emateko.